

HIRUGARREN MAILA - 92-93

① ELHEKETA = ASTE HUNTAKO ELHEPIDEA

- 1- Mari eta Xanetaren gezurra.
- 2- Xobadina
- 3- Beste en trufak.

② SORGINAK IX

XOBADINA ETA BERTZEAK ORO

MARIAK, XANETAK.—Jainko onak dautzuetela gau on!
XOBADINAK.—Bai zueri ere! *dagizuela*

KATTALINEK.—(Abapetik:) Gau on? Hoiere? Ez balinba, gaur segurik! (Jartzen dire Maria eta Xaneta, hitzik erran gabe. Bertzeak, beien hits-aldiari behatu eta, elgarri keinuka, abapetik birriz.)

XOBADINAK.—Non zinezten, arrats hautan guzietan, Maria, Xaneta? Gu bethi zuen goait... uste ere nuen joan den gauean erran bezala egiten zin aukutela, eta ez zin aukutela gure gaua gehiago ethorri nahi...

MARIAK.—Bai, ori, ez ongixko nintzen ni segurik.

XANETAK.—Ni ere hala hala.

KATIXAK.—Ezagun ere da, Xaneta; errotako zakua bezen puri eginak zaizte biak!

XOBADINAK.—Eta, zer zin aukuten bada?

MARIAK.—Ez gauza handirik baitezpada... (Orok keinu eta birri elgarri, ixil ixila.) Bainan, ori, gauaz errexi izitzen, sukar pitta bat aski zer nahiren bururatzeko, eta zer nahiren ikusteko eta entzuteko...

XANETAK.—Ni ere hola nintzen, ori. (Oro, ixilka, elgarri keinuka, eta abapetik birriz, salbu Xobadina. Hala hola ari behar dute bertalde bururaino, noizetik noizera, bi hiztorien abapaldir tan".) Nihaurek ongi dakita zer nuen hala? Haize hego figura horrek ere egiten bide zuen, dudarik gabe... Iduri eta arima herratuak... Dena amets tzar eta hola nintzan!

MARIAK.—Ametsa baizik ez balitz izan!

XANETAK.—(Ithotzerat joanak bezala:) Hori hori!... Bertzerik ere baitzen ordean!

MARIAK.—Bai, ene sukaldean, athean, selauruan ez zen harramantzarik ez da... Oihu, garrasia, orroa, xixtu... zer nahi entzun dut hiru gauetz... Harritua, ez ninditaken xutik eman ere... *mintak*

XOBADINAK.—Ditekena da hoi! Lotarik^m ari zinen...

XANETAK.—Bai, zera, lotarik! Nik ere Akelarre nuen hola hola, nere etxean.

OROK.—Oh! (Guziak ixilik bultzo batez; eta gero, alegia eta ikaran, elgarri kontra kontra hurbiltzen dira, jar-alkiak, jar-alkien aldean.) *onabrez*

MARIAK.—Eta holaxet, beraz, hiru arratsaldez! Jainkoa! Eta gero... (izitua bezala gelditzen da) gero, laugarren arratsean, mahain-ezkinean, paper hosto gorri gorri bat kausitu dut...

XANETAK.—Oh!...

GUZIEK.—Zer duzu, zer duzu?

XANETAK.—Nik ere paper bera...

GUZIEK.—Oh!... zer zen paper hartan?

MARIAK.—Huna, orizue, badakigu segur gogoz. Mahumak eta Ingumak luzaz eta luzaz seiatiuko gintuztela hola hola, eta gehiago oraino...

③ ADITZ IKASKUNTZA.

31. Egiten zin aukutela. 32. Ez balitz izan

33. Ditekena 34. Gintuztela

31. UKAN. Conj. à dble cplt. Indicatif

Imparfait - C.I. Plur. - Objet singulier

Zuk zin aukun = vous nous l'aviez (s)

Heiek zin aukun = il nous l'avait

Zuek zin aukuten = vous nous l'aviez (p)

Heiek zin aukuten = ils nous l'avaient

Emaiten zin aukun = vous nous le donniez

GURI = NOUS. C.I.P. - O.P.

zinauzkigun = vs nous les aviez; zauzkigun =

il nous les avait; zinauzkiguten = vs nous

les aviez; zauzkiguten = ils nous les avaient

Emaiten zinauzkigun = vous nous les donniez

32. IZAN. Suppositif éventuel 3^{ème} forme

Ni izan banintz = si j'avais été

Hi " bahintz = si tu avais été

Zu " bazine = si vous aviez été

Hura " balitz = s'il avait été

Gu " bagine = si nous avions été

Zuek " bazinezte = si vous aviez été

Heiek " balire = s'ils avaient été

33. IZAN - Potentiel Présent

Ni izan naiteke = je peux être

Hi " haiteke = tu peux être

Zu " zaitzke = vous pouvez être

Hura " daiteke = il peut être

Gu " gaitzke = nous pouvons être

Zuek " zaitzke = vous pouvez être

Heiek " daitezke = ils peuvent être